

Lehenengoko hariari jarraituz, hemen kostuen egiturei buruz hitz egingo dizuegu. Hasteko esan behar dugu bi kostu mota daudela; finkoa eta aldakorra, eta bakoitzean produktu edo material ezberdinen gastuak aurkeztuko eta adieraziko ditugu.

Lehenengoz, kostu finkoekin hasiko gara. Hemen beharrezko material eta tresna guztiak sartzen dira, gure kasuan izango litzateke: food truck-a, zenbait karpa euria egiten badu, sukaldatzeko lanabes guztiak (goilarak, labanak, zartaginak, lapikoak...).

Jarraitzeko, kostu aldakorreetan sartuko gara. Gure enpresaren kostu aldakorrak hurrengoak dira: lehengaiak, elikagaiak, elektrizitatea, food truck-aren gasolina, hornikuntza...

Ondoren, eskala ekonomikoari buruz arituko gara. Atal honetan planteatutakoa, hurrengoa da: gure zerbitzuetarako (kurtsilloak) behar izango ditugun lehengaiak, merkeagoak izango dira baldin eta bezeroen eskaera handitzen bada.

Amaitzeko, hedadura ekonomikoaren kostuari buruzko pasartea. Honako honetan, behin baino gehiagotan erabili izan ahal dugun sukaldatzeko tresnak eta alorra ezberdinetan lehengai berdinak erabiltzea (elikagaiak, ura, etab.).